

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren 94/2018 Foru Agindua, martxoaren 7koa, Aguraingo Hiri Antolamendurako Plan Orokorren 2. aldaketa puntualaren ingurumen txosten estrategikoa ematen duena**

Ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozeduraren eraginpean dago "Aguraingo (Araba) Hiri Antolamendurako Plan Orokorren (aurrerantzean HAPO) 2. aldaketa puntuala"ren izapidetzea. Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, arautzen du prozedura hori.

Prozedura horren esparruan, 2017ko urriaren 13an, Aguraingo Udalaren idazkia sartu zen Arabako Foru Aldundian, aipatutako plan bereziaren ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura izapidetzen hasteko asmoz. Horretarako, Aguraingo Udalak honako agiri hauek igorri zituen:

– "Aguraingo Hiri Antolamendurako Plan Orokorren 2. aldaketa puntuala"ri buruzko hirigintza dokumentua (1 ale paperean eta 1 ale euskarri informatikoan, "pdf").

– Ingurumen ebaluazio estrategiko erraztuaren ingurumen agiri estrategikoa, aipatutako hirigintza jarduketari buruzkoa (ale 1 paperean eta ale 1 "pdf" euskarri informatikoan).

2017ko urriaren 18an, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak abian jarri zuen ukitutako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko fasea, araututako prozedurari jarraituz.

Ebazpen horren oinarri den ingurumen txosten estrategikoa 2018ko otsailaren 28an eman du Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak (17/124 espedientea).

1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertutako aukerak.

1.1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena:

Aldaketa puntuala Aguraingo industrialdeko enpresa baten behar funtzionalak direla eta planteatzen da. Enpresak bere instalazioak zabaldu behar ditu eta egungo kokapenaren men-debaldean dagoen lurzati bat okupatu beharko luke. Lurzati horrek zuzkidura erabilera du (komunitate ekipamenduko erabilera: interes publikoko eta sozialeko zona) indarrean dagoen Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean.

Aldaketa puntualak ekarriko luke Donejakue bidearen ibilbidea aldatzea, eta hori Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeen Sarearen parte da. Horrek ekarriko luke, halaber, egungo zuzkidura erabilerako lurzatirako eta azalera bereko industria erabilerako beste lurzati baterako kalifikazioa aldatzea.


1.2. Ebaluatu behar den eremu geografikoa:

Aldaketa puntualaren eremua eraginpean dauden lurzatieta mugatzen da; horiek Aguraingo SAUI 1 eta 3 sektoreko konpentsazio proiektuaren 20 zenbakiko eta 18 zenbakiko lurzatiak dira, bai eta Donejakue bidea ere, AIU31 poligonotik, Aguraingo poligonotik duen tartean.

Hurrengo irudi hauetan, egungo egoera ikusten da, bai eta aldaketa puntualerako proiektatutako egoera ere:



Egungo egoera



Aldaketa puntualaren proposamena

Hurrengo taula honetan, lurzati bakoitzaren azalera eta erabilerak ikusten dira eta aldaketa puntualak ukitutako eremuak.

LURZATIAK, AZALERA ETA ERABILERA PLAN OROKORREAN ETA DOKUMENTU HONETAN PROPOSATUTAKO ALDAKETA PUNTUALEAN					
EGUNGO PLAN OROKORRA			PROPOSATUTAKO ALDAKETA PUNTUALA		
LURZATIA	AZALERA (m <sup>2</sup> )	ERABILERA	LURZATIA	AZALERA (m <sup>2</sup> )	ERABILERA
18 zenbakia	17.541,26	Industrial	18A zenbakia	10.637,76	Industrial
			18B zenbakia	6.903,50	Zuzkidurazkoa (1)
20 zenbakia	6.903,50	Zuzkidurazkoa (1)	20N zenbakia	6.799,50	Industrial
Donejakue bidea	884	Komunikazio sistemak	Donejakue bidea	988	Komunikazio sistemak
<b>GUZTIRA</b>	<b>25.328,76</b>			<b>25.328,76</b>	

(1) "Komunitate ekipamendua" (interes publiko eta sozialeko zona)

### 1.3. Aztertutako aukerak:

Sustatzaileak emandako agirietatik ondorioztatzen denez, jarraian laburtuta dauden hiru aukera planteatu dira:

- "0" aukera (Ez hautatua): Ekarriko luke Aguraingo industrialdeko 13. lurzatiaren jabe den enpresaren instalazioak ez zabaltzea.
- "1" aukera (Ez hautatua): Instalazioak zabaltzea ekarriko luke:
- Ekialderantz: Ez da aukera egokia, gauzatzeari dagokionez; izan ere, alboko lurzattia, gaur egun, beste enpresa bateko instalazioek okupatzen dute, eta jabea beste bat da eta jarduera du ezarrita.

– Iparralderantz: Ez da aukera egokia, gauzatzeari dagokionez; izan ere, Aguraingo industrialdearen bide bat dago.

– Hegoalderantz: Ez da aukera egokia, gauzatzeari dagokionez; izan ere, gaur egun, A-1 autobidea dago.

– “2” aukera (hautatua): Instalazioak mendebalderantz zabaltzea ekarriko luke, zehazki, 20 zenbakiko lurzatirantz; horretarako, egungo Donejakue bidearen trazadura 20. lurzati horren mendebalderantz bideratu beharko litzateke.

## 2. Kontsulta fasearen laburpena

2017ko otsailaren 18an, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak hasiera eman zion eragindako administrazio publikoei eta interesa duten pertsonen kontsulta egiteko faseari, araututako prozedurari jarraituz. Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarten zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duen adierazi da:

URA – Uraren Euskal Agentzia	X
Eusko Jaurilaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritza	
Eusko Jaurilaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	
Eusko Jaurilaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza	
GAIA elkarte	
Gasteiz Zero Zabor	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkarte	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	X
Arabako Kontzejuen Elkarte	
SEO Bird Life	
Aguraingo Udala	
Arabako Lautadako Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	X

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoaren laburpena (alegazio edo gogoe-ten kopia osoa dago Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 17/124 espedientean eta [www.araba.eus](http://www.araba.eus); webgunean):

- URA – Uraren Euskal Agentziak lehen txostena 2017ko azaroaren 3an eman zuen; aldaketa puntuala aztertu ondoren, zera adierazi du: “Agentzia honek ez du ikusten uren gaitan eragirik izan dezakeen alderdirik eta, beraz, ez da egingo bere eskumenen eremuaren esparruan kontuan izan beharreko oharririk”.

2017ko azaroaren 7an, URA - Uraren Euskal Agentziak bigarren txostena eman zuen, eta zera adierazi zuen bertan: “eskabidea Ebroko Konfederazio Hidrografikora bidali da, gai horren gaineko txostenik ematea egoki irizten badio ere, abenduaren 9ko 21/2013 Legean, ingurumen ebaluazioarenean, ezarritakoari jarraikiz”.

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak honako hau dio bere txostenaren ondorio gisa: "proposatutako aldaketak hiri lurzoruari eragiten dio, eta, beraz, ez du inolako eraginik abeltzaintza eta nekazaritza jardueran. Arabako Lurralde Historikoko landa bideen erregistroan inskribatutako landa bideetan ere ez du eraginik"

- Arabako Foru Aldundiaren Museo eta Arkeologia Zerbitzuak emandako txostenean, zenbait gai aztertzen dira: "Donejakue bidean proposatu den aldaketak aukera emango luke pertsonen joan-etorrirako, baina lege babes eraginkorrik gabe utziko luke antzinako bidearen tartea; beraz, puntu horretan interes historikoko bideari dagozkion egitura fisikoak kontserbatuz gero, babesik gabe geratuko lirake. Ondorioz, egiaztatu behar da desafektatuko den tartean bideko euskarri fisikorik dagoen eta baloratu zer interes duen kultura elementu gisa, hala badagokio etorkizunean kontserbatuko dela bermatzeko. Horretarako, arkeologia jarduketa (zundaketak) egin beharko litzateke, zalantza horiek argitzeko eta, horrela, egungo Kalifikazio Dekretua (2012-01-27ko 19 zenbakiko EHAA) aldatzeko edo ez aldatzeko beharrezko informazio guztia izateko. Proposatu den beste aldaketa dela eta (18. lurtzia A eta B azpilurtzietan banatzea), berez ez du eraginik Gazeoko Bidearen aztarnategian, zeinak ukitu gabe mantentzen baititu arkeologia kargak etorkizunean egon daitekeen edozein obraren aurrean"

- Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak txostenean zera jaso du: "espedientea aztertuta ikusten da proposatutako aldaketak eragina duela Donejakue bidearen trazaduran, Aguraingo tartean; urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuan kultura ondasun kalifikatu gisa kalifikatzen da, monumentu multzo kategoriarekin, Donejakue bidea EAEko tartean (2012-01-27ko 19 zenbakiko EHAA). Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak uste du egokia dela ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatua hasteko eskaera egiteko ingurumen dokumentu estrategikoaren kultura ondareari buruzko 6.2.13 puntuan eraginpeko lurralde eremuaren ingurumen karakterizazioa nola jaso den. Baina interesgarria da puntu horretan gogoratzea, 2/2012 Dekretuaren III. eranskineko 10.3 artikuluan jaso den bezala, "trazaduraren aurretiko aldaketak Donejakue bidearen kultura ondasun gisa kalifikatzeko Dekretuaren aldaketa ekarriko duela"

- IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak hauxe dio: "eremu horiek ez daude ez barne hartutako lurzatiaren barruan, ez lurzorua kutsa ditzaketan jarduera edo instalazioak izaten dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioari buruzko irailaren 30eko 165/2008 Dekretuan; ezta eguneratze zirriborroan ere." Era berean, honela dio: "lur mugimenduen prozesu bati ekin eta kutsadura zantzuak agertuz gero, Lurzorua ez kutsatu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko 1/2005 Legearen 10. artikulua betez, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi beharko zaio"

Bestalde, Arabako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Zuzendaritzak txostena bidali du, kontuan hartuta Aguraingo Udalak Arabako Garapen Agentziak Aguraingo AUI31 poligonoaren inguruan sustatutako Aguraingo Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren 2. aldaketa puntualaren hasierako onarpena bidali duela, horren inguruko txostena egiteko. Txosten horretan honako hau ondorioztatzen da: "kontuan hartuta planteatzen diren aldaketak erabilera aldaketari buruzkoak direla eta ez dutela Errepideen Foru Sarean eraginik, eta Donejakue bidearen trazaduraren aldaketa bati buruzkoak direla, aldatuko den lurzatiaren beraren barruan bakarrik egiten dela eta, nolahi ere, Errepideen Foru Sareko eraikigarritasun zonako mugatik kanpo, aipatu da Aguraingo Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren 2. aldaketa puntualak ez duela eragin zuzenik Arabako Errepideen Sarean. Beraz, Zerbitzu honek ez du bestelako baldintzatzailearik sartu behar"

3. Eragina jaso lezaketan elementuetatik zeintzuk diren ingurumen balio handienekoak. Ingurumen eragin nagusiak.

Aldaketa puntualaren eragina jasango duen ingurumen eta kultura balio handieneko elementua Donejakue bidea da; 145 metro inguruko tartean ukituko da, baina aldaketa puntualak hura leheneratzea aurreikusten eta ezartzen du.

Donejakue bidea, Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdea denez, 1/2012 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko ibilbide berdeenak, ezarritako arauketa eta antolamendua bete behar ditu, Era berean, Donejakue bidea Euskadin monumentu multzoaren kategoriako kultura ondasun kalifikatua da; Donejakue bidea, Euskadin, urriaren 10eko 2/2012 Dekretuaren bidez monumentu multzoaren kategoriako kultura ondasun kalifikatu gisa kalifikatu da (2012ko urtarrilaren 27ako 19 zenbakiko EHAAn argitaratua). Donejakue bideak, Euskadin, bi ibilbide ditu: Kostaldeko bidea eta Barrualdeko bidea. Aguraindik doana barrualdekoa da: bi ibilbideak kalifikatu dira, oraintsu, Unescoren Mundu Ondasun gisa.

Ingurumen dokumentu estrategikoan aipatzen den bezala, 2/2012 Dekretuaren IV. eranskinan bideari lotutako ondasunen zerrenda ageri da. Agurain Barrualdeko Bideari lotutako alde zaharren artean dago. Ingurunean, ez dago "Bideari lotutako bide historikorik," ez eta "Bideari lotutako obra zibilik" (galtzadak, babes bereziko edo oinarrizko babeseko mailan sartzen diren zubiak), ez "Bideari lotuta dauden babes bereziko monumentu multzo eta higiezinik" ere. Baina Agurainen badago "Bideari lotuta dagoen erdi mailako babeseko monumentu multzoa". Harresiko pilotalekua da, aztertu behar den tartetik urrun dagoena. Udalerrri honetan, halaber, "Oinarrizko babesa" duten bi elementu daude: San Lazaro eta Madalenaren ospitalea eta Ulako Santa Maria basiliza. Biak daude, halaber, azterlanaren helburu den aldaketa puntualaren esparruan aldatzeko aztertzen ari den bideko tartetik urrun. Ez dago inguru horretan, bestalde, "Bideari lotutako eraikuntzako hondarririk," ez eta "Bideari lotutako arkitekturako elementu txikirik" ere.

Aldaketa puntualaren eremuan dagoen landaredia dela eta, ez dago nabarmentzeko ingurumen balioa duen espezierik; izan ere, oro har bertan dauden landaredia formazioak espezie nitrofiloei eta antropogenoei dagozkie, hiriko lugorrietakoak eta hondakindegietakoak.

Ibai ibilguak direla eta, aldaketa puntualaren ingurunean uretako ekosistema nagusia Zadorra ibaia da; ibilgua eremutik 1.900 metro ingurura dago. Aguraingo Hiri Antolamendurako Plan Orokorren aldaketa puntualaren eremu zuzenean, ibilgu artifical bakarra dago, Aguraingo industrialdearekin batera gauzatua. Poligonoko hegoaldeko mugaren eta A-1 autobidearen iparraldeko betegarriko oinaren artean doa. Nolanahi ere, ez luke aldaketa puntualaren eraginik jasango, baina egia da, halaber, hurbileneko jarduketa Donejakue bidea leheneratzeko proposatutako trazadura izango litzatekeela eta hori, sustatzaileak emandako dokumentazioaren beraren arabera: "banda errespetatuko du, ibilguaren inguruan, zeina "espazio libreen sistema orokorra: hiri parkea" gisa baitago kalifikatua, bai egungo plan orokorrean, bai aztertzen ari den haren aldaketa puntualaren".

#### 4. Ondorioak. Ingurumen-baldintzatzaileak.

Lehenengo eta behin, adierazi behar da aldaketa puntual honen hirigintza dokumentuak ingurumen dokumentu estrategikoaren 10. idatz zatian jasotako neurriak jaso beharko litzatekeela, "Eragin negatibo esanguratsuak prebenitzeko, murrizteko eta zuzentzeko neurri"ei buruzkoak. Horiek honela banatzen dira:

- Arrisku eta prozesu geofisiko-akuiferoak-ur ingurunea.
- Balio naturalistikoak: landare estalkia.
- Balio estetikoak (paisaia).
- Kultura ondarea.
- Donejakue bidearen erromesen bidea.

Era berean, aldaketa puntualaren hirigintza dokumentuan jaso den "Plan orokorraren aldaketa puntualaren ondorioak ikuskatzeko programa" sartu beharko da ingurumen dokumentu estrategikoan.

Azkenik, honako ingurumen baldintza hauek ezarri behar dira, aldaketa puntualaren hirigintza dokumentuan sartzeko:

1. Aldaketa puntualaren sustatzaileak berriazko baimena eskatu beharko dio Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Sailari, Donejakue bideko ibilbide berdea birjartzeko; hark ezarriko ditu ibilbidea leheneratzeko baldintza egokiak. Hori guztia, urtarrilaren 4ko 1/2012 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko ibilbide berdeenak, ezartzen duenaren arabera.

2. Kontsulta fasean Arabako Foru Aldundiaren Museo eta Arkeologia Zerbitzuak emandako alegazioen txostenean jaso diren jarraibideak kontuan hartuta, aurreikusitako edozein jarduketaren edo aldaketa puntualaren obra eta gauzatze fasearen aurretik, arkeologia jarduketa egin beharko da (zundaketak), desafektatuko den tartean bidearen euskarri fisikorik dagoen ala ez egiaztatzeko, kultura elementu gisa duen interesa baloratzeko, hala badagokio, etorkizuneko kontserbazioa bermatzeko. Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailari arkeologia jarduketa horren esparruan hartuko diren neurrien berri emango zaio.

Horrenbestez, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzkoak, 40. artikuluan ematen dizkidan eskurantzak erabiliz,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aguraingo Hiri Antolamendurako Plan Orokorren 2. Aldaketa Puntualaren Ingurumen Txosten Estrategikoa egitea.

Bigarrena. Abenduaren 9ko 21/2013 Legea, ingurumen ebaluazioarena, betetzeko, ingurumen txosten estrategikoak ingurumen erabakiaren ondorioak izango ditu neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Agintzea ingurumenaren txosten estrategiko hau ALHAOn argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 7a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua*  
**JOSEAN GALERA CARRILLO**

*Ingurumen eta Hirigintzako zuzendaria*  
**AMAIA BARREDO MARTÍN**